

# Euskal Girotze Barnetegiak

2024  
2025



## Centros de afianzamiento idiomático

Barria /  
Elgoibar /  
Gorozika /  
Hondarribia /  
Lemoiz /  
Zerain /

## ARGIBIDEAK / INFORMACIÓN



Informazio gehiago behar izanez gero,  
jo helbide/telefono honetara:  
Para más información dirigirse a:

Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza Saila)  
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza  
Berrikuntzaren Zuzendaritza  
Euskara Zerbitzua (NOLEGA)  
Donostia-San Sebastian kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz  
Tf. 945 01 82 92





## Aurkibidea

---

I. Sarrera .....	3
II. Oinarizko antolamendu-arauak .....	4
III. Ordainbidea .....	5
IV. Parte hartzeko jardunbidea .....	6
V. Egonaldi-txandak .....	8

## Índice

---

I. Introducción .....	8
II. Normas básicas de funcionamiento .....	9
III. Financiación .....	11
IV. Procedimiento para presentar la solicitud .....	12
V. Turnos y estancias .....	8

## I. Sarrera

Gernikako Estatutuak 6. artikuluan xedatzen du euskara, Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza denez, ofiziala izango dela gaztelaniarekin batera eta biztanle guztiek dutela bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Halaber, dio behar diren neurriak hartuko direla hori bermatzeko.

Estatutuak jasotakoa garatuz, eskola-giroan euskararen erabilera bermatzeko eta, derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan, ikasleek euskara eta gaztelania erabiltzeko adina ezagutu ditzaten, Hezkuntza Sailak beharrezko neurriak hartuko dituena xedatzen du Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak (azaroaren 24ko 10/1982) 17. atalean, eta, 1983ko abuztuaren 1eko Aginduak, Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko Dekretua (uztailaren 11ko 138/1983) garatzen duenak, 12. atalean.

Lege-agindu horiek oinarritzat hartuz eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle askok, eskolan euskara ikasi arren, eskolaz kanpo giro euskalduna ezagutzeko eta bizitzeko aukerarik ez zutela ikusirik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskal Giroitze Barnetegiak eratzea erabaki zuen 1985eko ekainaren 17ko Aginduz (EHAA, 1985/06/19). Esperientzia hori 1985/86 ikasturtean gauzatu zen, lehen aldiz, Eubako Euskal Giroitze Barnetegian. Geroztik, beste barnetegi batzuk sortu dira, eta gaur egun sei Euskal Giroitze Barnetegi daude: Barria, Elgoibar, Gorozika, Hondarribia, Lemoiz eta Zerain.

Hasierako barnetegi haien helburua nagusiki eremu erdaldunetako ikasleak baziren ere, urtetako esperientziak eta gizartearen bilakaerak etengabeko eraldatze- eta egokitze- beharra ekarri die barnetegiei. Hala, gaur egun, edozein eremu soziolinguistikotako ikasleak hartzen dira barnetegietan, eta talde bakoitzaren errealtatea eta ezaugarriak kontuan hartuta prestatzen dira egonaldiak.

Euskal Giroitze Barnetegien helburu nagusiak dira ikasleen artean euskararen erabilera eta haren aldeko motibazioa indartzea, eta euskararekiko eta euskal kulturarekiko ezagutza eta atxikimendua hobetzea. Horretarako, euskaraz eta euskararen inguruan hitz egiteko guneak eta jarduerak eskaintzen zaizkie egonaldian zehar, baita, halaber, euskararekiko eta euskal kulturarekiko dituzten erreferentziak gehitu eta gaurkotzeko tresnak ere. Horrekin batera, hizkuntzen gaineko hausnarketa bideratzen

da, zeinetan hizkuntza aniztasuna, gutxiagotutako hizkuntzak eta hizkuntza ekologia bezalako gaiak jorratzen diren. Hori guztia talde kohesioa eta norberekiko konfiantza emozioetatik eta jolasaren bidez landuz. Horretarako, ikasturtean zehar 4 eguneko egonaldiak eskaintzen dira LMH3tik DBH2ra bitarteko ikasleentzako.

Gainera, Hezkuntza Sailaren Laguntza Zerbitzua diren aldetik, euskararen aldeko jarrera eta motibazioa bultzatzeko landu eta probatu dituzten metodologia eta baliabideak eskaintzea eta gai horren inguruan laguntza eta aholkua ematea ere xede dute Euskal Giroitze Barnetegiak. Alde horretatik, taldearekin batera bertaratzen diren irakasleentzat ere prestakuntza gune izan nahi dute. Bide hori egiteko, 24 irakasleko talde egonkorra eskaintzen dute, lan horretan arituak eta adituak diren irakasleak.

2024-2025 ikasturterako, Euskal Giroitze Barnetegien programa aurrera eramanez, araudi honen ataletan zehar honakoak zehazten dira: barnetegien oinarritzako antolamendu-arauak, egonaldietako partehartzaileek bete beharreko baldintzak, egonaldien beraien ezaugarri nagusiak eta ordainbideak eta eskabideak egiteko prozedura.

**1. atala.** 2024-2025 ikasturtean Euskal Giroitze Barnetegietan parte hartzeko eskabideak egiteko deialdia jakinarazten da. Barnetegietan egonaldi-txanda(k) eskatzeko epea **2024ko martxoaren 4tik 22ra bitartekoa izango da**, bi egun horiek barne.





## II. Oinarrizko antolamendu-arauak

**2. atala.** Euskal Girotze Barnetegien deialdia honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasle-taldeentzat da:

- a) LH 3tik DBH 2ra (biak barne) bitarteko ikasle-taldeei zuzenduta dago deialdi hau.
- b) Taldeak naturalak izango dira eta gehienez ere Hezkuntza Sailak LHrako eta DBHrako ezarrita dauzkan ratioen arabera. Talderen batek baimenduta baldin badu bestelako ratio bat, egiaztatu egin beharko da ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiri bidez.
- c) Taldeak gutxienez 15 ikaslekoak izango dira. 15 ikasle baino gutxiagoko talde naturalen kasuan, 2 talde biak batera onartuko dira egonaldi baterako, bien artean 15eko kopurura iritsiz gero.
- d) Euskara irakasgaiak salbuetsiak dauden ikasleen kasuan, komeni da irakasleek egonaldiaren aurretik barnetegiarekin hitz egitea.

**3. atala. Egonaldiak 4 egunekoak dira: astelehen goizean hasi eta ostegun arratsaldeko seietan bukatuko dira.** Astelehena jai den asteko txandak asteartetik ostiralera izango dira: astearte goizean hasi eta ostiralean arratsaldeko seietan bukatuko dira txanda horiek. **Egonaldiaren egun kopurua eta iraupena ezingo dira ez laburtu ez luzatu.**

**4. atala.** Eskabide bakarra egingo da ikastetxeko, nahiz eta talde bat edo maila bat baino gehiago eskatu.

**5. atala.** 2024-2025 ikasturterako, araudi honen V. atalean azaltzen diren egonaldiak eratu dira.

**6. atala.** Barnetegietan egonaldia egingo duten ikasle-taldeen behar bezala arduratzeko, barnetegiak honako gizajendeaz daude horniturik:

- a) Girotze-arduradunak: Hezkuntza Sailak jarritako irakasleak (4 irakasle, barnetegi bakoitzean).
- b) Pertsonal ez-irakaslea: egoitzaren jabea edo honek jarritako langileak; etxearen, garbitasunaren eta otorduen arduradunak.

- c) **Ikasle-taldearen irakasleak: ikasle-taldearen ohiko 2 irakasle euskaldun** izango dira. Hala badagokio, hezkuntza-laguntzako espezialistak ere egongo dira.

**7. atala. Girotze-arduradunak.** Barnetegiek berariazko irakasleak izango dituzte, bertako euskal girotze-lanaren arduradun. Irakasle horiek irakaskuntza publikoko maisu-maistren kidegokoak dira, Hezkuntza Sailak eginkizun jakin horretarako bereziki hautatuak.

Girotze-arduradunen eginkizun nagusiak honakoak dira:

- a) Egonaldia prestatzeko aurrelanak egitea: ikasle-talde bakoitzaren ikastetxearekin harremanetan jarriko dira girotze-arduradunak, girotze-lanari ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko eta barnetegietan funtzionamendu egokia segurtatzeko. Hartarako beharrezko jotzen dituzten informazio, aholku eta orientabideak emango dizkiete:
  - Batetik, ekintza-plana aurkeztuko zaio aldian aldiko irakasleari, eta plan horren baitan berari dagozkion eginbeharrak adieraziko.
  - Bestetik, ikasleek barnetegira eraman beharreko arropen eta gainerakoak berri emango diete eta barnetegiko funtzionamendu-arauak adieraziko.

Informazio hori **2024ko irailaren 4an (asteazkena)** barnetegi bakoitzean egingo den bileran emango da. Ikasturte osoan barnetegietara bertaratuko diren irakasle guztiekin egingo da bilera.

- b) Egonaldi osoan zehar, egunero-egunero, girotze-lanerako ekintza konkretuak antolatu eta, irakaslearekin batera mamitzea.

Girotze-arduradunek, txandaka, barnetegiko ekintzen ardura izango dute.

**8. atala. Ikasle taldearen irakasleak. Barnetegira joango den ikasle-taldea bere ikastetxeko bi irakasle euskaldunekin joango da.** Egunero egongo dira ikastetxeko 2 irakasle, ez gehiago eta ez gutxiago. Hala badagokio, hezkuntza-laguntzako espezialistak ere egongo dira.

Irakasle horiek ondoko eginkizun hauetaz arduratuko dira, besteren artean:

- a) **2024ko irailaren 4an, asteazkena**, egingo den bileran parte hartu.
- b) Barnetegiko giroitze-arduradunek azalduko dieten ekintza-planean oinarrituz, ikasle-taldeari eta beren gurasoei horren berri eman eta prestakuntza-lanak elkarrekin bideratu.
- c) Ikasle-taldea egonaldiaren hasieran barnetegira eraman eta, egonaldiaren amaieran, barnetegitik etxera.
- d) Egonaldian bere ikasle-taldearekin egon. Edozein modutan, tarte libreak izango dituzte eta horien berri barnetegian bertan emango zaie.
- e) Barnetegiko egonaldiko ekintza-planean beraiei dagokien neurria parte aktiboa hartu.
- f) Barnetegiko eta egoitzako araudia ezagutu, eta ikasleei betearazi.
- g) Ikasleen ustekabekoetan (gaixoaldia, ikaslea etxera eraman beharra eta abar) ikasleaz arduratu eta, ikastetxearen edo gurasoen bidez, etxeratzeko bideak eta horien ordainketa bilatu eta gauzatu.
- h) Erabilera desegokiaren ondorioz barnetegian egindako kalteen ordainketa bideratu.



Taldearekin batera joaten diren ikastetxeko irakasleek araudi honen 12-c atalean zehazten den diru-gehirria jasoko dute.

**9. atala. Taldearen irakasleak izango dira egonaldi osoan zehar ikasle-taldearen arduradun.** Barnetegiko edo egoitzako arauak eta programa betetzerakoan arazoak sortzen badira eta taldearen irakasleak egoerari aurre egiten ez badio, ikastetxeak eman beharko dio gaiari konponbidea, ikastetxeko araudia ezarriz edo kasurako egokien irizten dion neurria hartuz.

### III. Ordainbidea

**10. atala.** Euskal Giroitze Barnetegietako egonaldiaren kostuak, partez, Hezkuntza Sailak ordainduko ditu eta, partez, irakasleak.

**11. atala.** Egonaldi hauetara datorren ikasleari ordaintzea dagokion zatia 45 eurokoa izango da 2024-2025 ikasturtean.

Ikasleen eta irakasleen joan-etorrien gastua ikastetxearen kontu izango da, orobat.

**12. atala.** Hezkuntza Sailak honako gastuei egingo die aurre:

- a) Irakasleak ordaindu duen kopurutik egoitzak umeko eta egonaldiko kobratzen duenera falta den zatia.
- b) Ikasle-taldearen irakasleen egonaldi bakoitzeko egoitza-gastu osoa.
- c) Ikasle-taldearen 2 irakasleek 100na euroko ordainsaria jasoko dute 2024-2025 ikasturtean, barnetegian egonaldia egiteagatik eta han dagozkien ardurak euren gain hartzeagatik. 2 irakasleri dagokiona bakarrik ordainduko da, nahiz eta txandaka irakasle gehiago izan egonaldi berean. Hezkuntza-laguntzako espezialistari ere 100 euro ordainduko zaizkio. Zenbateko horri dagokion zerga-euspina egingo zaio.
- d) Barnetegiko irakasleen urteko gastuak.
- e) Egonaldietako ekintza-planak mamitzeko beharrezko baliabideen kostua.

## IV. Parte hartzeko jardunbidea

**13. atala.** 2024-2025 ikasturtean Euskal Girotze Barnetegi bateko egonaldi-txanda bat eskuratzeko interesa duten ikastetxeek modu elektronikoa erabiltzeko dituzte eskabidea eta eskabideari lotutako prozedura guztiak.

a) Herri ikastetxeen kasuan, "Herri Ikastetxeak" atariaren bidez egingo da eskabidea, honako helbide honetan:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/egb-2024>

Eskabidea egiteko azalpenak ere helbide horretan daude. Eskabidea egin ondoren jarraibidea "nire eskabideak" gunearen bidez egin ahal izango da, aipatutako gune elektronikoa.

b) Itunpeko ikastetxeen kasuan, eskabidea egin behar da Euskadiko Autonomia-Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa erabiltzeko bidez, honako helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0036612>

Eskabidea egiteko azalpenak ere helbide horretan daude. Eskabidea egin ondoren jarraibidea "nire karpeta" gunearen bidez egin ahal izango da, aipatutako gune elektronikoa.

**14. atala.** Eskabidean ikastetxeak arduraz adieraziko ditu honakoak:

- Zuzendariak onartzen duela araudi honek dioena eta ikastetxean interesaturik leudekeen guztiei honen berri eman diela.
- Ikastetxeko 2 irakasle euskaldun, eta hala balegokio, hezkuntza-laguntzako espezialista(k), 2024-2025 ikasturtean ikasle-talde horren irakasle izatekoak direnak, Euskal Girotze Barnetegiaren ezaugarri nagusien jakinaren gainean daudela eta bertara joateko asmo sendoa dutela.

**15. atala.** Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak, horretarako izendatuko duen Ebazpen- batzorde baten bidez, aukeratuko ditu 2024-2025 ikasturtean Euskal Girotze Barnetegietara joango diren ikasle taldeak.

Guztira 174 txanda eskainiko dira 6 barnetegiaren artean. Txanda kopuru osoaren 2/3 (116 txanda) ikastetxe publikoetako taldeentzat izango da eta 1/3 (58 txanda) itunpeko ikastetxeentzat. Egonaldi-txanden esleipena puntuazio jakin baten arabera gauzatuko da sare bakoitzean. Puntuazioa zehazteko, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

- Ulibarri Hizkuntz Normalkuntzako Proiektuan sartuta daudenek: 10 puntu.
- Eskabidea egin duten ikastetxeen artean, aurreko urtean joateko aukera izan ez zutenei lehentasuna emateko:
  - a) -15eko puntuazioa emango zaie aurreko ikasturtean txandaren bat izan zuten ikastetxeei.
  - b) 15 puntu emango zaizkie azken hiru urteetan, gutxienez behin, txanda eskatu eta bakarra ere izan ez dutenei.
- Gizarte egoera ahuleko ikastetxea izatea. Irizpide honetan ikasle bekadunen ehunekoa hartuko da kontuan:
  - 1. (% 0- %20): 1 puntu
  - 2. (% 21-%40): 2 puntu
  - 3. (% 41-%60): 3 puntu
  - 4. (% 61-%80): 4 puntu
  - 5. (% 81-%100): 5 puntu
- Gune soziolinguistikoa nolakoa den ere kontuan hartuko da. Euskararen ezagutza eta erabileraren arteko aldearen arabera:
  - 1. (% 0 eta %5): 6 puntu
  - 2. (% 6 eta %10): 7 puntu
  - 3. (% 11 eta %15): 8 puntu
  - 4. (% 16 eta %20): 9 puntu
  - 5. (% 21 eta %25): 10 puntu
- Puntuazio berdineko bi ikastetxeren artean bereizteko irizpideak:

- a) Lehenengoa: DBH1eko talde sortu berriek (hainbat ikastetxetatik etorritako ikasleak), hori eskabidean horrela adierazi badute, lehen-tasuna izango dute. Eta, ahal dela, txanda lehen hiruhilekoan emango zaie.
- b) Bigarrena: Barnetegian txanda eskuratu gabe urte gehien daraman ikastetxearen alde.

**16. atala.** Ebazpen-batzordearen erabaki-proposamenak bi zerrenda izango ditu. Lehenengoan, barnetegian txanda eskuratu duten ikastetxeak azalduko dira; bertan adieraziko da ikastetxe bakoitzari zer barnetegi eta zenbatgarren egonaldi-txanda egokitu zaion. Bigarren zerrendan, txandarik gabe geratu diren ikastetxeak azalduko dira ordezeko moduan, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta, handienetik txikienera. Txanda egokitu zaion talderen batek bere txandari uko egiten badio, hura betetzeko erabiliko da ordezeko zerrenda.

Ebazpen batzordearen akta Hezkuntzako sailburuordeari bidaliko zaio, eta hark dagokion ebazpena emango du. Ebazpen hori honako ataletan egongo da eskuragarri 2024ko ekainean:

- a) "Herri-ikastetxeak" atariko "nire eskabideak" atalean  
<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/egb-2024>
- b) Euskadiko Autonomia-erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan  
(<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/erabakiak/>)

**17. atala.** Ikasle-talde osoari dagokion egoitza-gastua diru-sarrera bakarrean ordainduko da, 7. atalean aipatutako bileran adieraziko den jardunbidearen arabera. Ordainketa egin behar den epearen barruan, ikastetxeak adierazi behar dio barnetegiari zehatz-mehatz zenbat ikasle bertaratuko diren. Edozein kasutan, gutxienez 15 ikasleri dagokiona ordaindu beharko da.

Ordainketa egiteko epemugak:

- 1. hiruhileko taldeak: 2024ko urriak 2
- 2. hiruhileko taldeak: 2024ko azaroak 6
- 3. hiruhileko taldeak: 2025eko martxoak 5

Esandako egun horretarako egoitza-gastu horiek ordaindu gabe badaude, egoitzaren arduradunak premia larriko deia egingo dio ikastetxeari eta, adierazitako epean erantzun zuzena jasotzen ez badu, egonaldi horretarako aukera ordezeko talde bati emango dio.

Ikastetxeren batek aurreikusi gabeko arrazoiengatik egonaldia egiterik ez badu eta, ondorioz, txandari uko egin behar badio, horren berri eman beharko dio barnetegien koordinatzaileari idatziz, helbide honetan:  
[m-izagirre@euskadi.eus](mailto:m-izagirre@euskadi.eus)

**18. atala.** Ikastetxeren batek hartutako konpromisoa, edota ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu, eta horretarako eman duen arrazoiak ez bada aintzat hartzen, Hezkuntza Sailak hurrengo ikasturteko deialditik kanpora utziko du.





## V. 2024-2025 ikasturteko egonaldi- txandak. Turnos y estancias

TXANDA	EGONALDI-EGUNAK
1	2024-09-16/19
2	2024-09-23/26
3	2024-09-30/10-03
4	2024-10-07/10
5	2024-10-14/17
6	2024-10-21/24
7	2024-11-04/07
8	2024-11-11/14
9	2024-11-18/21
10	2024-11-25/28
11	2024-12-02/05
12	2024-12-09/12
GABONETAKO OPORRAK	
13	2025-01-13/16
14	2025-01-20/23
15	2025-01-27/30
16	2025-02-03/06
17	2025-02-10/13
18	2025-02-17/20
19	2025-02-24/27
20	2025-03-03/06
21	2025-03-10/13
22	2025-03-17/20
23	2025-03-24/27
24	2025-03-31/04-03
ASTE SANTUKO OPORRAK	
25	2025-05-05/08
26	2025-05-12/15
27	2025-05-19/22
28	2025-05-26/29
29	2025-06-02/06

## I. Introducción

El Estatuto de Gernika establece en el artículo 6 que el euskera, como lengua propia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, será oficial junto con el castellano y que todos los habitantes tienen derecho a conocer y usar ambas lenguas. Asimismo, señala que se tomarán las medidas necesarias para garantizarlo.

El artículo 17 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, de Normalización del Uso del Euskera, y el artículo 12 de la Orden de 1 de agosto de 1983, por la que se desarrolla el Decreto 138/1983, de 11 de julio, por el que se regula el uso de las lenguas oficiales en la enseñanza no universitaria del País Vasco, establecen que el Departamento de Educación adoptará las medidas necesarias para garantizar el uso del euskera en el ambiente escolar y garantizar el conocimiento del euskera y del castellano al finalizar la enseñanza obligatoria.

En base a esos preceptos legales y ante la dificultad de que un gran número de alumnos y alumnas de la Comunidad Autónoma Vasca, a pesar de estudiar en euskera, pudieran conocer y vivir un ambiente euskaldun fuera de la escuela, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación resolvió por Orden de 17 de junio de 1985 (BOPV, 19/06/1985) poner en marcha la experiencia de los Centros de Afianzamiento Idiomático/Euskal Girotze Barnetegiak. Dicha experiencia se materializó por primera vez durante el curso 1985-86 en el Centro de Afianzamiento Idiomático de Euba. Posteriormente se han ido creando otros barnetegis y actualmente existen seis en funcionamiento: Barria, Elgoibar, Gorozika, Hondarribia, Lemoiz y Zerain..

Aunque el objetivo inicial de los Centros de Afianzamiento Idiomáticos era principalmente el alumnado con un entorno familiar y social mayoritariamente erdaldun, la experiencia de años y la evolución de la sociedad ha llevado a los barnetegis a una constante necesidad de transformación y adaptación. Así, en la actualidad, los barnetegis acogen a alumnos y alumnas de cualquier ámbito sociolingüístico, y las estancias se programan teniendo en cuenta la realidad y las características de cada grupo.



Los objetivos principales de los Centros de Afianzamiento Idiomático son potenciar el uso del euskera y aumentar la motivación y el apego hacia la lengua y la cultura vasca, profundizando en su conocimiento. Con este fin, se ofrecen, durante la estancia, espacios y actividades para hablar en y sobre el euskera, además de herramientas para que el alumnado actualice e incorpore nuevas referencias de la lengua y la cultura vasca. Asimismo, se abordan temas como la diversidad lingüística, las lenguas minorizadas y la ecología lingüística. Todo ello trabajando la cohesión grupal y la confianza en uno mismo desde las emociones y a través del juego.

Para ello, se ofrecen estancias de 4 días a lo largo del curso para alumnos y alumnas de 3º de Primaria a 2º de la ESO.

Además, como Servicio de Apoyo del Departamento de Educación, está entre sus objetivos dar a conocer la metodología y los recursos para fomentar la motivación y la actitud a favor de la lengua vasca que han ido probando y creando durante años, así como dar apoyo y asesoramiento en esa materia. En ese sentido, también pretenden ser un espacio de formación para los profesores que acompañen a los grupos. Para ello, cuentan con un equipo de 24 profesores con años de experiencia y expertos en el tema.

Para poder llevar a cabo el programa de Centros de Afianzamiento Idiomático en el curso 2024-2025, a lo largo de los apartados de este reglamento se detallan las normas básicas de organización y funcionamiento de los centros, los requisitos que deben cumplir los participantes en las estancias, las principales características de las mismas, la financiación y el procedimiento de solicitud.

**Artículo 1º.** Se da a conocer la convocatoria para solicitar estancias en los Centros de Afianzamiento Idiomático de Barria, Elgoibar, Gorozika, Hondarribia, Lemoiz y Zerain para el curso 2024-2025. El plazo para presentar las solicitudes será del **4 al 22 de marzo de 2024, ambos inclusive.**

## II. Normas básicas de funcionamiento

**Artículo 2º.** La convocatoria de Los Centros de Afianzamiento Idiomático está dirigida a los grupos escolares que cumplan los siguientes requisitos:

- Grupos de alumnos y alumnas de 3º de Primaria a 2º de ESO (ambos inclusive).
- El grupo estará compuesto por una clase entera del centro. La cantidad máxima de alumnos y alumnas por grupo estará determinada por las ratios establecidas por el Departamento de Educación. En el caso de que algún grupo tenga autorizado otra ratio, deberá acreditarlo mediante certificación del director del centro.
- Los grupos serán de al menos 15 alumnos y alumnas. En el caso de grupos naturales con menos de 15 alumnos y alumnas, se admitirán 2 grupos de forma conjunta para una estancia, si se alcanza el número de 15 entre ambos.
- En el caso del alumnado exento de la asignatura de euskera, es conveniente que el profesor del grupo se ponga en contacto con el barnetegi antes de la estancia.

**Artículo 3º.** Las estancias serán de 4 días y deberá permanecerse en los Centros de Afianzamiento desde el lunes por la mañana hasta las seis de la tarde del jueves. Los turnos de las semanas en la que el lunes sea festivo serán de martes a viernes, comenzando el turno el martes por la mañana y finalizando el viernes a las seis de la tarde. **El número de días de estancia y su duración no podrán ser reducidos ni prolongados.**

**Artículo 4º.** Se realizará una única solicitud por centro, aunque se solicite más de un grupo o nivel.

**Artículo 5º.** Para el curso 2024-2025 se han organizado las estancias que figuran en el apartado V de la presente normativa.

**Artículo 6º.** Para atender adecuadamente a los grupos de escolares que asisten a las estancias, los Centros de Afianzamiento cuentan con el siguiente personal:

- a) Responsables de afianzamiento idiomático: profesorado dependiente del Departamento de Educación (4 profesores en cada Centro).
- b) Personal no docente: propietario de la residencia o personal dependiente, responsable de la residencia y de los servicios de limpieza, cocina, etc.
- c) **Los profesores acompañantes del grupo: han de ser necesariamente 2 profesores euskaldunes habituales del grupo.** También irán, en su caso, especialistas de apoyo educativo.

**Artículo 7º.** Responsables de afianzamiento idiomático. Los Centros contarán con profesorado especializado, responsables de la labor del afianzamiento idiomático. Estos profesores pertenecen al Cuerpo de Maestros y Maestras de la enseñanza pública, expresamente seleccionados por el Departamento de Educación para esta función concreta.

Las principales funciones de los responsables de Afianzamiento Idiomático son las siguientes:

- a) Desarrollar las labores de preparación previas a cada estancia, poniéndose en contacto con el centro escolar de cada grupo, de forma que se pueda obtener el máximo provecho a la estancia y se asegure el funcionamiento adecuado del Centro de Afianzamiento Idiomático, dándoles la información, instrucciones y orientaciones que se estimen oportunas a tal efecto:
  - Por un lado, darán a conocer al profesor acompañante el plan de actuación en el que se indiquen las funciones que le corresponden.
  - Por otro, le darán cuenta de las prendas de vestir y demás complementos que el alumnado debe llevar al Centro, así como de las normas de funcionamiento del mismo.

Esa información y la documentación necesaria se facilitarán principalmente en la reunión que tendrá lugar el día **4 de septiembre de 2024 (miércoles)**, en cada uno de los Centros de Afianzamiento. La reunión se realiza con todos los profesores que acudirán a lo largo del curso.

- b) Organizar y, en colaboración con el profesor acompañante, llevar a cabo diariamente las actividades concretas para desarrollar la labor de afianzamiento idiomático durante toda la estancia.

Serán estas personas responsables del afianzamiento idiomático quienes, a turnos, se encarguen de las actividades que se lleven a cabo en los Centros.

**Artículo 8º.** Los profesores acompañantes. **El grupo que acuda al Centro de Afianzamiento lo hará con 2 profesores euskaldunes.** Todos los días habrá 2 profesores del centro, ni más ni menos. También irán, en su caso, especialistas de apoyo educativo.

Esos profesores se encargarán, entre otras, de las siguientes funciones:

- a) Asistir a la reunión a celebrar en el Centro de Afianzamiento el día **4 de septiembre de 2024, miércoles**, y recoger la información y documentación necesaria.
- b) Informar al grupo de alumnos y alumnas y a sus padres sobre el plan de acción que les expondrán los responsables del afianzamiento idiomático del centro y llevar a cabo, conjuntamente, las labores de preparación que se precisen.



- c) Hacerse cargo del grupo de alumnos y alumnas en el viaje de ida para comenzar la estancia en el Centro de Afianzamiento Idiomático y en el de vuelta al final de su estancia en el mismo.
- d) Permanecer con el grupo de alumnos y alumnas durante la estancia. En cualquier caso, dispondrá de tiempo libre, del que se le dará cuenta en el propio Centro de Afianzamiento.
- e) Participar activamente en la medida que le corresponda en el plan de acción de la estancia en el centro.
- f) Conocer la normativa del centro y hacerla cumplir al alumnado.
- e) Hacerse cargo de los casos imprevistos (enfermedad, alguna eventualidad en la que sea preciso trasladar al alumno o a la alumna a casa, etc.) hallando por medio de su centro escolar o de las familias la manera de efectuar y abonar dicho traslado.
- g) Tramitar el pago de los daños causados en el barnetegi como consecuencia de su uso inadecuado.

Los profesores acompañantes del grupo que realicen la estancia en el Centro de Afianzamiento Idiomático recibirán el complemento económico que se especifica en el artículo 12 c de la presente normativa.

**Artículo 9º. Los profesores acompañantes serán los responsables** de los alumnos y alumnas durante toda la estancia. En caso de que surjan problemas a la hora de cumplir con el reglamento tanto del barnetegi como del albergue y con el programa de actividades, si el profesor acompañante no afronta la situación, será responsabilidad del centro educativo dar solución al tema, aplicando la normativa del centro o adoptando la medida que considere más adecuada para el caso.

### III. Financiación

**Artículo 10º.** Los costes de la estancia en los Centros de Afianzamiento Idiomático serán sufragados en parte por el Departamento de Educación y en parte por el alumnado.

**Artículo 11º.** La parte que le corresponde pagar al alumno o a la alumna que viene a estas estancias será de 45 euros en el curso 2024-2025. El gasto de desplazamiento del alumnado y profesorado correrá a cargo del centro.

**Artículo 12º.** El Departamento de Educación se hará cargo de los siguientes gastos:

- a) La diferencia entre la cantidad abonada por el alumno o la alumna y la que cobra la Residencia por persona y estancia.
- b) Gastos íntegros de la estancia de los profesores acompañantes.
- c) Los 2 profesores del grupo de alumnos y alumnas percibirán en el curso 2024- 2025 una retribución de 100 euros cada uno, por la estancia en el barnetegi y la asunción de las responsabilidades correspondientes. Sólo se abonará lo correspondiente a 2 profesores, aunque haya más profesores a turnos en la misma estancia. También se abonará 100 euros al especialista de apoyo educativo. A este importe se le aplicará la retención fiscal correspondiente.
- d) Gastos anuales de los profesores de los barnetegis.
- e) Gastos correspondientes a los recursos necesarios para la ejecución de los planes de actuación de las estancias.



## IV. Procedimiento para presentar la solicitud

**Artículo 13°.** Los centros interesados en solicitar un turno de estancia en un Centro de Afianzamiento Idiomático durante el curso 2024-2025 realizarán la solicitud y todos los procedimientos asociados a la solicitud de forma electrónica.

a) En el caso de los centros públicos se realizará la solicitud a través del portal “Herri-ikastetxeak”, en la siguiente dirección:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/egb-2024>

La información para realizar la solicitud también se encuentra en esa dirección.

Los trámites posteriores a la solicitud, se podrán realizar a través del apartado “mis solicitudes” que se encuentra en el portal anteriormente mencionado.

b) En el caso de los centros concertados, la solicitud se hará en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en la siguiente dirección:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0036612>

La información para realizar la solicitud también se encuentra en esa dirección.

Los trámites posteriores a la solicitud, se podrán realizar a través del apartado “mi carpeta” que se encuentra en la Sede Electrónica anteriormente mencionada.

**Artículo 14°.** El centro escolar acreditará, mediante una declaración responsable incluida en la solicitud, los siguientes requisitos:

- c) Que el director del centro acepta lo establecido en esta normativa y lo ha comunicado a todos los interesados en el centro.
- d) Que acompañarán al grupo 2 profesores euskaldunes del centro, (y, en su caso, especialistas de apoyo educativo), preferiblemente profesores de dicho grupo durante el curso 2024-2025, y que dichos profesores están al corriente de las principales características del Centro de Afianzamiento Idiomático.

**Artículo 15°.** La Dirección de Aprendizaje e Innovación Educativa seleccionará, por medio de una Comisión que reunirá a tal efecto, los grupos que acudirán a los Centros de Afianzamiento Idiomático durante el curso 2024-2025. En total se ofrecerán 174 turnos entre los 6 barnetegis. Del número total de turnos, 2/3 (116 turnos) serán para los centros públicos y 1/3 (58 turnos) para los centros concertados. La asignación de las estancias se realizará en función de la puntuación obtenida por cada centro. Para establecer la puntuación se aplicarán los siguientes criterios:

- Centros que están en el Programa Ulibarri de Normalización Lingüística: 10 puntos.
- Entre los centros solicitantes, para dar prioridad a los que no pudieron acudir el año anterior:
  - a) Se asignará una puntuación de -15 puntos a los centros que el curso anterior tuvieron algún turno.
  - b) Se asignará una puntuación de 15 puntos, a aquellos centros que hayan solicitado turno al menos una vez en los tres últimos años, y no hayan obtenido ninguno.





- Ser centro educativo desfavorecido. En este criterio se tendrá en cuenta el porcentaje de alumnado becario:
  1. (0%-20%): 1 punto
  2. ( 21%-40%): 2 puntos
  3. ( 41%-60%): 3 puntos
  4. ( 61%-80%): 4 puntos
  5. (81%-100%): 5 puntos
- También se tendrá en cuenta la zona sociolingüística, según la diferencia entre el conocimiento y el uso del euskera:
  1. (0% eta 5%): 6 puntos
  2. (6% eta 10%): 7 puntos
  3. (11% eta 15%): 8 puntos
  4. (16% eta 20%): 9 puntos
  5. (21% eta 25%): 10 puntos
- Criterios de diferenciación entre dos centros de igual puntuación:
  - a) Primero: tendrán preferencia los grupos de nueva creación de primero de la ESO (alumnado procedente de varios centros), y que así lo hayan indicado en la solicitud. Y, preferentemente, se les dará turno en el primer trimestre.
  - b) Segundo: a favor del centro que lleve más años sin obtener una estancia en los barnetegis.

**Artículo 16°.** La Comisión de Resolución elevará propuesta de Resolución, que incluirá dos listas. La primera recogerá la lista de centros seleccionados y el turno que les ha correspondido; y la segunda, la lista de centros que quedan en situación de reserva para sustituir a los centros que puedan causar baja, según la puntuación obtenida, de mayor a menor.

El acta de la Comisión será remitida a la viceconsejera de Educación, quien dictará la Resolución oportuna. Dicha Resolución estará disponible en el apartado "mis solicitudes" del portal "Herri-ikastetxeak"

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/egb-2024>

y también se publicará en el tablón de anuncios de la Sede Electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi (<https://www.euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios/resoluciones/>)

en junio de 2024.

**Artículo 17°.** El gasto de estancia correspondiente a todo el grupo de alumnos y alumnas se abonará en un único ingreso, de acuerdo con el procedimiento que se indicará en la reunión mencionada en el artículo 7°. El centro deberá indicar al barnetegi el número exacto de alumnos y alumnas que acudirán al mismo, dentro del plazo de pago. En todo caso, se abonará lo correspondiente a un mínimo de 15 alumnos y alumnas. Límite de fecha de pago:

- Grupos del primer trimestre: 2 de octubre de 2024
- Grupos del segundo trimestre: 6 de noviembre de 2024
- Grupos del tercer trimestre: 5 de marzo de 2025

En caso de no haber abonado los gastos de residencia para dicha fecha, la persona responsable de la Residencia reclamará el pago de los mismos al centro escolar y, de no recibir respuesta en el plazo indicado, se adjudicará la estancia a uno de los grupos sustitutos.

En el caso de que un centro no pueda realizar la estancia por causas no previstas y tenga que renunciar al turno, deberá dar conocimiento de la renuncia, por escrito, a la coordinadora de los barnetegis, en la siguiente dirección: [m-izagirre@euskadi.eus](mailto:m-izagirre@euskadi.eus)

**Artículo 18°.** Si algún centro escolar incumpliese el compromiso adquirido y/o alguno de los requisitos establecidos, y la justificación aducida no fuese aceptada, dicho centro quedará excluido de la convocatoria del curso siguiente.

